

ETBko langileek PPk eta PSEk medioaren ildo informatiboari egindako kritikak gaitzetsi dituzte

Idatzi bat plazaratu dute horretarako eta bertan babes osoa azaldu diote Julio Ibarra lankideari

Erredakzioa / Donostia


PPk eta PSE-EEK joan den astean hitz latzak plazaratu zituzten Euskal Telebistaren aurka. Su-etenaren ostean telebista publikoak hainbat ahots –abertzaleenak– ozen zabaldu dituela salatu zuten, eta beste batzuk, berriz, estali egin dituela, eta bereziki salatu zuten Julio Ibarra kazetari eta aurkezlearen jarduna. Minduta, haren lankideek kritika horiek gaitzetsiz idatzi bat plazaratu dute.

JOAN den osteguneko ekitaldi parlamentarioan Eusko Legebiltzarrean kritika latzak entzun ziren ETBko albistegien aurka. PSE-EEko Rodolfo Ares eta PPko Carlos Urkijo gogor mintzatu ziren su-etenaren ostean beren ustetan medio publikoak hartu duen norabideagatik, «ideia politiko abertzalearen esanetara» dagoela kritikatu. Bereziki Julio Ibarra kazetaria salatu zuten. «Lizarrakoen promozioa egiten ari da, gainontzeko guztiak bazterrean utzi-rik», esan zuen kexati Julio Ibarri buruz Carlos Urkijok. Ildo berean, eskandaluzko hitzekin kritikatu zuen Ares sozialistak Julio Ibarrak

D ere duaren aldeko kanpaina batean esku hartu izana, eta Gara egunkariaren lehen alean artikulua bat idatzi izana.

Kritika horiek direla eta minduta daude Julio Ibarren lankideak, eta idatzi bat –behean irakurgai– plazaratu dute horren berri emanez. «Idatzi horren atxekimenduak era guztiz espontaneoan sortu dira», esan zuen atzo ETBko langile batzordeko ordezkari batek. «Domeka arratsaldean langile batzuek idatzi hori ipini zuten jendearen bistan, eta jende pila batek sinatu du, inoiz baino gehiagok».

Igande arratsaldetik atzo goizera 125 langilek sinatu zuten idatzia. Izan ere, «profesionaltasunaren aurkako» erasotzat jo dituzte langile horiek aipatu kritikak.



ETBko erredakzioako langileen ekimenez sortu da idatzi hau.

ARTXIBOKOA

idatzia

Iritzi publikoari

■ AZKEN bolada honetan Julio Ibarra lankidearen kontra, PPk eta PSEk egin dituzten salaketa eta erasoak salatu beharrean gaude idatzi hau egin dugun ETBko langileak:

Lehenik eta behin, gure elkartasuna agertu nahi diogu Gaur Egund 2 eta Teleberri2ko editorea den Julio Ibarriari.

Gure ustez, PPk eta PSEk bere aurka esandakoak ez dira kritika hutsa.

Bigarren, ez dugu bidezkoztat jotzen, lankide dugunaren bizitza pribatuaren datuak Legebiltzarrean eman nahi izatea. Honek helburu bat duela uste dugu: bere sinesgarritasuna zalan-tzan jartzea. Gure iritziz, hori ez da ordezkari politiko baten eginkizuna. Julio Ibarriak D ere duaren aldeko agiria

sinatzea susmagarria al da PSErentzat?

Hirugarren, ez dugu onartzen ez PP, ez PSE, ez eta beste edozein alderdi politiko ere, gure lanaren tutore bihurtzea, beti ere argi utziz guztiek dutela kritikarako eskubidea.

Laugarren, idatzi hau sinatu dugun langileok Euskadiko errealitatea, independentziaz eta aniztasunez plazaratzearen aldeko apustua egiten dugu.

Idatziaren sinatzaileak

125 langilek sinatu dute testua lurreta eta Miramongo produkzio guneetan, eta Brusela, Gasteiz, Bilbo, Madril, Baiona eta Iruñeko korrespondentzietan.

1. Jasone Aretxabaleta
2. Pedro Garcia Larragan
3. Jokin Zubia
4. Ainhoa Larretxea
5. Karnele Hernandez
6. Maixa Lizeaga
7. Mikel Olazabal
8. Jorge Cerrato
9. Txemi Galarraga
10. Fermin Aramendi
11. Andoni Arratibel
12. Javier Coto
13. Jose Luis Mujika
14. Leire Etxebarria
15. Amaia Urkia
16. Luis Delgado
17. Ibar Iriondo
18. Patxi Hidalgo
19. Nagore Peñafiel
20. Jose Mari Agirre
21. Izaskun Urkiaga
22. Iñaki Gurrutxaga
23. Jose Ituarte
24. Estitxu Elduaien
25. Jorge Iturricastillo

26. Karnele Akasolo
27. Elene Alberdi
28. Monika Tubia
29. Juanan Legorburu
30. Xabier Andueza
31. Naxari Altuna
32. Asier Aranguren
33. Lourdes Iriondo
34. Ainhoa Delgado
35. Miren Goikuria
36. Julen Altube
37. Marian Etxebarria
38. Gema Lasas
39. Baltasar Perez
40. Maite Amundarain
41. Jotxo Larrañaga
42. Juan Carlos Etxebarria
43. Aritz Galarza
44. Edurne Arrieta
45. Jaime Valtierra
46. Luis Barreiro
47. Bingen Zupiria
48. Maddalen Iriarte
49. Maite Zurikarai
50. Pello Sarasola

51. Elixabete Garmendia
52. Cristina Urrutia
53. Agurtzane Aramendi
54. Ane Miren Lizarralde
55. Inma Alvarez
56. Guillaume Irigoien
57. Jesus Etxezarraga
58. Miren Josu Arrazola
59. Gerardo Puente
60. Juan Luis Bikuña
61. Elena Amezcaga
62. Itziar Alberdi
63. Maribel Aizarna
64. Uxue Barkos
65. Koro Astigarraga
66. Idoia Asla
67. Andoni Basabe
68. Asier Larrinaga
69. Ramon Gorostidi
70. Inma Zabaleta
71. Mikel Urretabizkaia
72. Carmen Baroja
73. Miren Solagaistua
74. Edurne Etxebarria
75. Oskar Coca

76. Lontzo Sainz
77. Aitor Galbarriartu
78. Lide Zubia
79. Luis M. Martin
80. Idoia Alberdi
81. Julen Etxebarria
82. Josu Zarate
83. David Barbero
84. Garbiñe San Miguel
85. Jokin Bildarratz
86. Ainhoa Bakero
87. Xabier Montoia
88. Maolo Erkizia
89. Juan Andres Argoitia
90. Alberto Letona
91. Ibon Idigoras
92. Imanol Unzurrunzaga
93. Igone Etxebarria
94. Andoni Lizeaga
95. Arantxa Larrañaga
96. M. Isabel Leibar
97. Txaber Ortuzar
98. Joseba Arredondo
99. Jonan Apaolaza
100. Xabier Euzkitze

101. Maje Juaristi
102. Iñigo Agirre
103. Karnele Elezgarai
104. Ana Santa Kruz
105. Roberto Perez
106. Iñaki Atxutegi
107. Andres Gomez
108. Bittor Kortazar
109. Arantza Uriarte
110. Felipe Etxebarria
111. Amaia Lauzirika
112. Itziar Azpeitia
113. Iñaki Olano
114. Aintzane Bolinaga
115. Gotzon Arribas
116. Enrique Agirre
117. Olga Zabalgoeaskoa
118. Begonia Zubietza
119. Elixabet Ogiza
120. Bakarne Eiguren
121. Asier Odriozola
122. Joseba Iriondo
123. Iñaki Errea
124. Xabier Carrillo
125. Idoia Urteaga